






Fundacion Sancho el Sabio Fundazioa

N- 63851
F- 64643

1515
28013



unduan, beste asko bezela, etxe batean bizi omen
zan aita bere iru semekin: Kaxkañ, Koxkoñ eta
Kuxkuf.

Sagasti aundi bat omen zeukaten etxe inguruan
eta, gabero gabero, sagañak ostutzen omen ziz-
kien baten-batek.

Ala, gau batean, Kaxkañ, anai zafena, kontu artzen geratu omen
zan; baño goiz-aldera loak artu, ta besteetan bezela sagañak ostu
omen zizkien.

Ufengo gabeen, Koxkof, anai bigafena, geratu omen zan sagasti zai; baño ua ere goizaldera loak artu, eta, Kaxkaferi bezelaxe, ari ere sagafak ostu. Irugafen gabeen ala dio Kuxkur anai gazteenak : « Nik zaituko det sagastia ». Ezetz besteak, ark ez zuala ortarako balio ta. Baietz, Kuxkur'ek; berak zaituko zuala ondo; eta berari ez ziola inork ostuko sagafik.

Ala bada, geratu da Kuxkur gaztea sagasti zai, eskuan igitai bat duala.

Alako batean, goizaldera, nun agertzen dan sagastiko orma gañean alako buelo beltz aundi bat.

Jotzen du igitaiakin mutilak. Bai-ta bere aldiko laistefen lapufa ezkutatu ere.

Eguna zabaltzean, iru anaiak, sagastira joan omen ziran, eze-ren arastorik ote zegoan ikustera.

Bai-ta orma baztafean, an omen zegoan alakoxe esku beltz aundi bat.

Lapufak alde-egin zuan bidea beriz, odol tantoz dana markatuta omen zegoan.

Lapufa nun bizi zan ikusi bear zutela ta « ¡Ea goazen! Odol arastoari segitu dezaiogun », esan zien Kuxkur'ek besteei.

—« Goazen ba », erantzun zioten besteak.

Eta ala, ba-dijoaz odol arastoan, joan-da-joan, joan-da-joan. Eta alako batean arizabal aundi baten ondora eldu ziranean, odol, arastoa eskutatu zitzaien.

—« Afi onetxen azpian egongo da lapuñaren bizi-lekua. »

—« ¡Altxa zagon aña! »

Altxa zuten bada, eta izugarizko leize zulo bat agertu zan azpian.

Bertan txotxalamotx, zein beera jetxiko, egin omen zuten : ta zefieri tokatuko, ta zañenari, Kaxkañ'eri.

Baña Kuxkuñ'ek : « ¡Utzi neri! ¡Neroni jetxiko naiz! »

—¿Bai? Ta bai.

Ala bada, eskuan igitaia artuaz, eta soka batetik zintzilika, beste anaiak goitik eusten ziotela, jetxi zan gure Kuxkuñ leize-zulora.

Eta, an bean, zoragarizko neska gazte eder bat bilatu omen zuan.

Mutilak galde egin zion ia zen zan eta an zer egiten zuan. Eta neskak esan zion onelako ta alako eñegearen alaba zala; an, leize artan, sorgin bat bizi zala eta sorgin aretxek aña patu ta aspaldi artan preso zeukala, eta, mutilari Jainkoagatik andik alde-egin zezala, bestela galdua zala. Mutilak orduan esan omen zion ez zezala euki bildurik, berak libratuko zuala ta. Neska oñek orduan eskupelariok eman omen zizkion mutilari.

Mutilak lotu omen zion geritik soka neskari eta goian gelditu ziran anaiei « ¡soka goratu! » deadañ egin omen zien. Kaxkañ eta Koxkoñ anai biren artean atera zuten leize-zulotik neska ori, eta berakin, anai gaztea leizean utzi ta, alde-egin omen zuten.

Eta Kuxkur¹ gizajoa, baruan, an omen zebil²en batera ta bestera, irteteko laguntzalerik ez zuala. Eta, alako batean, bilatzen du sorgi³ña, katu aundi bat aldamen⁴ean duala, aulki batean eserita ileak or⁵azten. Ikusi zuan orduko, saltatzen zaio aurpegira k⁶atua, eta ekiten dio atzama⁷rka muti⁸lari.

Kentzeko ari gero k⁹atua onik nai ba-zuan, ots-egiten omen zion muti¹⁰lak sorgi¹¹ñari. «Ezet¹²z», sorgi¹³ñak, eta gañ¹⁴era, siñuka, minga¹⁵ña atereaz asi omen zitzaion.

Bai-ta joaten zaio muti¹⁶la sorgi¹⁷ñari eta biok, alka¹⁸ri eldu ta, ekiten diote bur¹⁹ukan.

Be²⁰riz ere sorgi²¹ñak, siñuka, minga²²ña erakusten omen zion. Bai-ta muti²³lak igitai²⁴akin !zast! minga²⁵ña moztu ta polsi²⁶lon gorde.

Baño ez omen zion or²⁷egatikan sorgi²⁸ñak obeitzen, eta orduan, muti²⁹lak, eskupelariok burutik beera sa³⁰rtu omen zizkion.

—« Kendu izkidak neri abek », deada³¹r egiten zion sorgi³²ñak.

—« Ez, ez dizkiñat kenduko, ni zulo ilun ontatik ateratzen ez-ba-naun. »

—« Aterako aut ba ». Eta orduan, sorgi³³ñak, artu muti³⁴la bizka³⁵r gañ³⁶ean eta alaxe, matxiko, aidean leizean gora atera zuan.

Gero andik, muti³⁷l ori, leizeko neska-gazte aren aita-e³⁸regearen e³⁹fira joan omen zan. Eta an aditu omen zuan, e⁴⁰regearen alaba sorgi⁴¹ñen mendetik muti⁴²l batek atera omen zuala, eta muti⁴³l ori (Kaxka⁴⁴r) berakin u⁴⁵fengo egunean zijoala ezkontzera.

Gero, Kuxkur⁴⁶, ostatu batera sa⁴⁷rtu eta ango gela batean burniz-



Fundacion Sancho el Sabio Fundazioa

ko malu txiki batekin kax-kax-kax leioa joaz, zerbait egiten ari baltz bezela, egun guzia pasa omen zuan.

Ufengo goizean jafi omen zan leiotik begira, noiz ezkongaiak agertuko ote ziran. Eta alako batean, nun ikusten dituan, jende sail baten erdian, bere anai zafena eta eregearen alaba ezkontzera dijoazela.

Orduan, Kuxku'ek, aftu zuan eskuetan sorgiñaren mingaña eta « miari, miari, emen orduko an izan ari », egiten zion.

Onekin, sekulako, danak eraman beafeko aize bat irten omen zan. Eta egoaldi txafa zegoala ta ufengo egunerako ezkontza atzeratu omen zuten.

Eta beñiro, Kuxku'ek, ostatuko bere gelan sartuta mailuakin kax-kax-kax leioa joaz egun guzia pasa omen zuan.

Ufengo goizean ba-dijoaz beñiz ere ezkongaiak beren ezkontza egitera.

Baita gure Kuxku'ek aftu eskuetan sorgiñaren mingaña eta osterera ere « miari, miari omen orduko an izan ari » egin zion.

Onekin, sekulako aizea irten, eta beste egun batez ezkontza atzeratu beaf izan omen zuten.

Orduan ere, Kuxku' azkarak, lenagoetan bezela, egun guzia leiondoan mailuakin kax-kax-kax egiñaz pasa omen zuan.

Irugañen egunean irteten dira ezkongaiak, eta beñiz ere Kuxku'ek « miari, miari, emen orduko an izan ari », eta ezkontzarik ezin egin.

Au ikusirik asi zan jendea esaten
ba-zebilela efi artan parte ixafe-
koen bat eta bere bila asi ziran.

Berealaxe erian zabaldu omen
zan, inork ezagutzen ez zuan mutil
kanpotar bat ostatuan, antxe ze-
goala ezkutatua.

Artu zuten Kuxkur gixajoa eta



eragearen aufera
eraman zuten.

Baño, gure muti-
lak, ez ziola ezer
esango erageari.
Bakarik eragearen
alabari azaldu nai
ziola zein zan.

Deitu diote, bada, eŕegearen alabari. Eta mutilak orduan esku-
pelãriok atera-ta ia aek ezagutzen zituan esan omen zion.

Baietz, erantzun zuan eŕegearen alabak, ezagutzen zituala.
Baita Kuxkuŕ zala, eta ez Kaxkarŕ sorgiñaren mendetik bera atera
zuana.

Gero Kuxkuŕ eta eŕegearen alaba, biak ezkondu eta, andik au-
ŕera oso ondo bizi izan omen ziran.

Ori ala ba'zan
Sartu dedila kalabazan.



“Arantzazu’ko Ama” Ikastetxea

ETXAIDE, 4. — DONOSTIA

**Euskeraz irakasten dan, umetxoentzako
ikastola.**

**Donosti’ko Udala (Ayuntamentuaren)
laguntza dauka.**

A R G I A

ASTEROKOA

Danoentzat irakurgai atsegiña.

Loyola’raġ Iñaki deuna’reġ Iraġkola. — Garibai, 28, Donostia.

